

**Kultura** Domeka honetan Artisau Azoka herrian  
**Sutondoan** Bai Euskarari Eguna maiatzaren 27an

# pitpilean

SORALUZEKO  
HAMABOSTEKARIA  
133. alea, 2006ko  
maiztaren 12an



“Oraindik ere  
kontestatariorio  
izateko  
zaletasuna  
daukat”

*Benito Lertxundi*



# ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berariazko Institutoa  
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44  
www.armeriaeskola.com / secretario@armeriaeskola.com

2006/2007 IKASTURTEA

HEZKUNTZA ESKAINTZA

"A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

**BATXILERGOA**  
**ERDI MAILAKO**  
**ZIKLOAK**

**GOI MAILAKO**  
**ZIKLOAK**

ZIENTIFIKOA  
MEKANIZAZIOA  
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA  
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA  
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA  
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK  
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK



MUGARIK GABEKO  
"TALDE EKINTZA"  
ZUREA ETA GUREA



### IZENA EMATEKO:

**Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak,**  
**apirilaren 24tik maiatzaren 5era (biak barne).**  
**Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1etik 7ra (biak barne).**

**Zikloen eskaintza partziala/sarrera-frogaren prestakuntza.**  
**Etengabeko eta langabetuentzako prestakuntza.**

## Soraluzeko VI. Amodio Gutunen Lehiaketa



### • Partehartzaileak

Hamahiru urtetik gorako edozein idazlek parte har dezake.

### • Lanak

Lanak euskeraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabeak izan behar dira. Ez da itzulpenik onartuko.

### • Gaia

Idazlanean jorratu beharreko gaia amodio gutuna izango da.

### • Aurkezpena

Gutunak sobre batean aurkeztuko dira, egilearen izenik jarri gabe, goitzen batekin. Lanari erantsitako sobre batean, azalean, lanaren izenburua eta egilearen goitizena jarriko dira bistan. Barruan, egilearen datuen berri emango da: izen abizenaak, helbidea eta telefono zenbakia.



### • Nora eta noizko aurkeztu

Lanak ekainaren 17rako aurkeztu behar dira, Soraluzeko taberna ezberdinetan ipiniko diren buzoietan edota 27. posta kutxatilara bidaliko dira.

### • Sari banaketa

Ekainaren 24an, Galipoteko jaien barruan egingo den kontzertuan banatuko dira sariak.

Nagusiak	Gaste maila
1. Saria 150 euro	1. Saria 100 euro
2. Saria 100 euro	2. Saria 50 euro

Euskalkian idatzitako gutunik onena 75 euro.

*Animatu eta idatzi!!*

Antolatzailea:



Laguntzailea:



# Software librearen defentsan



BITTOR LASKURAIN

Noizbait galdetu dotsazu zeure buruari gure administrazio publikuak zenbat gastatzen daben programa informatikuetan?

Bale, badakit seguru asko zuk ez ditzuzula sekula ordaindu eta beste horrenbeste lagunen moduan zuk daukazun Office-a, "gratis" izan zala. Pentzau baina, ordenadorian dakazuzen programa danorrek (bihar dan moduan) ordaintzen ditzuzula: Windows XP 120, Office 200 (Beep), Antivirus bat 50 inguru... Ixa 400 euro gastau dozuz eta juxtu-juxtu kartak idazteko balio daben ordenadore bat daukagu. Gehitu kontabilidadia, datu baseren bat...

Oin pentzau Gipuzkuako Foru Aldundiak zenbat holako ordenadore daukazen. 1.000? 10.000? Biderketa bat eginda errez ikusten da zenbat diru juaten dan programatan. Eta hau bi, hiru edo lau urtian behin errepikatzen dan gastua da gainera. Diru hau multinazional erraldoietara juaten da, behin eta berriz asto berdina saltzen doskue gainera. Edo badaki batenba-

tek esaten Office 2000 eta Office 2003an artian ze alde daguan?

"Programak biharrezkuak diranez ordaindu egin bihar, beste aukerarik ez dago" pentzauko dau batek baino gehixagok. Badira baina 20 urte inguru mundu guztixan zihar banatutako programadoriak alternatiba bat emoteko lanian dabizela. Windosenen partez GNU/Linux dago, Office-en partez Open Office, XPressen partez Scribus. Antibirusa ahaztu, ez dozu gehixagobiharko. Listia ez da bukatzen: ixa programa bakoitzeko jende honek egindako baliokide bat dago. Batzutan hobia, bestetan eskas-txuagua, baina beti eta betiko, duan dana. Pegak be badare, zela ez, baina Munich moduko hirixetan konturatu dira bentajak gehixago dirala: hiritarri gutxiago kobrau bihar eta egin biharrezko lana etxeko enpresetan egin leike, diru multinazionala bialdu barik. Hemen legeren bat urten da hori bultzatzeko. Legiak bai, baina ekintzak noizko?

"DIRUA  
MULTINAZIONAL  
HAUNDIXETARA  
JUATEN DA. BEHIN  
ETA BERRIZ ASTO  
BERDINA SALTZEN  
DOSKUE."

Ni behintzat zain naio.



#### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarteak  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze  
Telefonia 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

#### Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno  
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,  
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka  
Salaberria eta Egoitz Unamuno

#### Publizitatea:

Ugaitz Catalan  
Logotipoa: Jon Gabilondo  
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale  
Inprimategia: Gertu Koop.  
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen  
aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza  
jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



#### ERREPORTAIA

*Orioko taberna batean egin diogu elkarrizketa Benito Lertxundiri. Luze, euskal gizarteaz, musikagintzaz eta bizitzaz pentsatzen duena kontatu digu. Maiatzaren 26an bere kantuekin gozatzeko aukera izango dugu, kiroldegiko frontoian*

## Zorion agurrak



### Garazi Jauntsarats

Maiatzaren 8xan,  
5 urte

*Zorionak printzesa!!*



### Jon López

Maiatzaren 20xan,  
urte 1

*Zorionak eta musu asko zure lehenengo urtebetzian, familiaren partez.*



### Pedri Lete

Maiatzaren 16xan,  
53 urte

*Zorionak Pedro!! Urtekin asko alperrik galtzen dia, baina zu ardaia moduan, urtekin mejoratzen!! Ez aldatu inoiz! Patxo haundi bat etxeko danen partez!!*



### Juan A. Varela eta Irune Varela

Maiatzaren 21ian,  
Maiatzaren 20xan

*Zorionak bikote!! Ondo pasau zuen urtebetzia. Musu asko etxekuen partez!*



### Ander eta Elena

Maiatzaren 6xan ezkondu ziren Oñatin

*Zoriona bikote, primeran pasau genduan bodan!! Zoriontsu izan eta ondo-ondo pasau eztei bidaiari. Kuadrilakuak.*

## Oharra

### 1962an jaiotakoen bazkaria

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere kintoen bazkaria egingo dute 1962. urtean jaiotakoek. Bazkari eguna **ekainaren 10ean** izango da **Txurruka jatetxean**. Hitzordua Txoko kafetegian egin dute eguerdiko 14:00etan. Bazkaritarako izena Txurruka jatetxean (943 75 15 81) eman beharko da ekainak 3a baino lehen.

## Gutunak

### Zientzia politikoaren garapen modernoaz

Nik bi momentu nagusi ikasten ditut zientzia politikoan, bata da aristotelismoaren inguruan teorizatutakoa, eta bestea marxismoaren inguruan, eta bigarren hori eskuinak ere bere hartzen du bere buruari eskuina deitzen dionean, eta elementu falaziazko nabari batzuek kenduta onargarria da oso, bere analisis ekonomiko politikoa batez ere, eta aurrera-

pen handia ere dela afirma daiteke zientzia politikoan, zeina zientzia praktikoa den, zeren erabakitzeke orduan geroa indeterminatua baita, hau da erabakia libre da beti, definitua izan daitekeelarik zientzia praktikoa objektua termino abenturazkoetan.

Roman Garmendia



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Lana

### Udalekuearako begiraleak

Durangoko Barbaro Euskara Elkarteak udalekuearako aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu (uztailean).

**Telefonoa:** 94 620 19 18 (Rakel).

### Arkitekto 1

Zierbenako Udala. Arkitekto tekniko edo aparejadore titulua behar da.

Nahitaezkoa ez den 3. Hizkuntza eskakizuna.

**Epea:** 2006-05-28.

**Telefonoa:** 94 636 53 36.

## Ekintzak

### XVIII: Gazteen Antzerki Topaketa

Donostiako Udala. Iraupena: 2006ko apirilaren 25etik ekainaren 24ra arte. Edukia: Topaketako sarierarako hautagai diren antzerki taldeen emandak eta aktoreekin hizketaldiak.

**Epea:** 2006-06-25.

**Sarreren erreserbak:** 943 48 19 09.

**http://www.donostia.org.**

## Ikastaroak

### Egonaldiak Familia Euskaldunetan

Urrats Euskaltegia. 8. urratsa edo balio-kidea gaudituta duten euskara ikasleak. 18 urtetik gorako pertsonak. Hilabete 1 edo 2, 2006ko uztailetik irailera.

**Epea:** 2006-05-31.

**Telefonoa:** 943 46 55 93 / 94 416 24 72

**Web orria:** [www.egonaldiak.net](http://www.egonaldiak.net).

**Balioa:** 300,00 euro hilabetea.

## Hildakoak

- NICASIO MOYA BARROCAL
- ILDEFONSO MADARIAGA TELLERIA



kutxa

gizarte ekintza



VIDAL  
frutadenda

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

## Zer irizten dotsazu?

Ez da egun asko falta gure herria kantu hots atseginez betetzeko. Maiatzaren 26an hain zuzen, bisitan etorriko da Benito Lertxundi abeslari ezaguna herrira.

# Badakauzu musika entzuteko ohiturarik?



**Jone Arruabarrena**  
14 urte, ikaslia

Bai, badaukat. Batez be denbora librian entzuten dot, radiokasetian normalian. Rock, Punk... , horrez gain euskal musika be gustatzen jata, trikitixa batez be, hemengo girua akordatzen dosta eta.



**Magalys Vazquez**  
29 urte, laguntzaila

Asko entzuten dot. Etxian, ta-bernan... toki askotan. Gehixenetan musikia romantikua eta nere herrikua, Errepublikak Dominikanakua. Baina Euskal Herrikua be edarra pentsatzen jata. Gainera askotan musikian bidez arazuak arintzen jataz.



**Luis Mari Kortaberria**  
53 urte, operarixua

Bai, irratixan eta telebistan beste inun baino gehixago. Bakalaua ez, gainontzeko dana gustatzen jata. Gainera musikiak trankilidadia transmititzen dosta jeneralian.



**Tere Perez**  
59 urte, etxeoandria

Pixkat bai. Irratixan, cdian... danetik gustatzen jata; lasai-xak, martxosuak... Baita hemengo musikia be, penia da letria ez dotela ulertzen, baina hala eta be, bertsuak eta ika-garri gustatzen jataz.



**Iñaki Martinez**  
23 urte, tornillerua

Ez asko. Ordenadorian eta hola entzuten dot normalian. Extremo Duro, Marea,... tipo hortako grupuak. Lehenago Sorotan Bele be asko gustatzen jatan, oin ixa entzun be ez dot egitten mota horretako musikia.



**Ander Ariznabarreta**  
11 urte, ikaslia

Bai, gabetan entzuten dot mp3 ipinita. La Polla, Piperrak... taldiak dittut gustoko. Baita euskeraz abesten dabenak be; Berri Txarrak, Su ta Gar... Trankildu egitten nau musikiak, lo hartu arte.

## KREA

Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI

Tel.: 635731268

## EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

# PP ur transbasearen ibilbideagatik kezkatuta



Jose Javier Núñez PPko zinegotzia eta Regina Otaola PPko Batzar nagusietako bozeramailea prentsaurrean agertu ziren ostegunean Urkultutik Eibarrerako ur transbasearen gaineko informazio falta salatzeke. “Onartezina” eritzi diote herritarrek ez jakitea oraindik ur transbasearen ibilbide ofiziala zein izango den. Diputazioaren argitasun falta salatu zuten eta Udalari errespetua zor diola gogoratu.

# Partikularrei konposta egiten erakutsiko zaie

Debabarreneko Mankomunitateak kanpaina berri bat jarriko du abian, “norberak konpostazeko kanpaina”, konposta (etxeko hondakinak ongarri bihurtzea) egiten erakusteko, bereziki etxean lorategia edo ortua dutenei zuzendua. Kanpaina izen

ematen dutenei kobnpostagailua erabiltzen erakutsiko zaie tailer batean eta ondoren konpostagailua eta eskuliburua emango zaie doan. Izen ematea maiatzaren 19<sup>a</sup> baino leheango egin beharko da Udaletxean (953753043).



**25 ZIURTAGIRI.** Herriko 25 eragilek jaso zuten Bai Euskarari ziurtagiria joan zen egunean egin zen banaketa ekitaldian. Elkarte eta taldeok, euren jardunean euskara erabiltzeko konpromisoa berretsi dute horrela. Zorionak!

## 488 sinadurak “Bai eskolak euskalduntzeari!”

80 sinaduratik gora jaso ziren joan den zapatuan “Bi Eskolak euskalduntzeari!” kanpainaren barruan antolatu zen sinadurak jasotzeko egunean. 80 sinadura berri hauekin, guztira 488 dira herri mailan jaso diren sinadurak. Maiatzaren 27an nazio mailako manifestaldia egingo da Donostian, administrazioari eskolek euskalduntzea bermatzeko eskatuz.



## Aparkaleku berria Olan

Herrian autoak aparkatzeko dagoen arazoa ikusita, Udalak aparkaleku berri bat egokitu du Olako zubi ondoan. Lurra joan zen astean berdindu zuten eta datozen egunotan marra zuriz markatuko dute. Ordura arte ez da jakingo zenbat autorenako aparkalekua izango den.



**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDETEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

# Zatikako onarpenak baino ez PERari egindako elegiteeri



PER-ari edo Herriko Erdigunea Eraberritzeko Plan Bereziari egin zitzaizkion 10 elegiteetatik 3 onartu dira, partzialki, edo kontuan hartu eta aztertuko direla aginduta. Lehenengoa, Parrokiak elizatarirako sarbidea hobetzeko eskatzen zuena; bigarrena, SAHk estaziora igotzeko

elementu mekanikoak eskatzen zituena eta hirugarrena Etxaburuetako bizilagun batena, bere etxeostean eraiki nahi den espaloi batek leihoa estal ez diezaion. Gainontzeko elegiteak ez dira onartu, Esther Zarrabeitia arkitektoak egindako informe teknikorik oinarri hartuta. Ordenazioz kanpo geratzen dira beraz eraikin eta eraikin zati hauek: Santa Ana eta Kalebarrenean etxe muturra ibai aldera irtenda duten eraikin zatiak (kooperatiba, Soziedadeetako sukaldia, Gaztetxea eta etxe partikular batzuk), eta Etxaburuetako eta galipoteko etxeosteko eskilarak. Plaza Zaharra eta Arregia dorrea ez dira PER-ean sartu SAHk eskatu arren.

## San Isidro Eguna Arraten



Debabarreneko baserritarrak Arrateko zelaietan elkartuko dira astelehenean, maiatzak 15, San Isidro baserritarren patroia eguna ospatzeko. Debemenek (Debabarreneko landa garapen elkarteak) egitarau zabala prestatu du egun honetarako: meza, prozesioa, bertsolariak, txakolin eta txerriki dastaketa, bazkaria eta herri kirolak.

## Udal Gobernuak ez du LABen mozioa onartu

SAHk LAB sindikatuaren izenean aurkeztutako mozioa ez zen onartu maiatzaren 4an egin zen udalbatzarrean. Mozioa, duela bi aste LABek egindako salaketa baten aritik zetorren, non agertzen zuen plazentzian lanean ari diren Eibarko enpresa bateko dozena bat langile portugaldar barrakoieta bizi diren. EAJ-EA gobernu taldeak aurkako botoa eman zuen eta PP eta PSE absenteitu egin ziren.

## Mendi gainean ibilgailuz ibiltzea debekatu da

Soraluzeko Udalak seinale berriak jarri ditu Karakaten edozein motordun ibilgailuri mendi gainean ibiltzea galerazteko, azkenaldian lau erruberako "kart" ibilgailuek mendigainean sortarazten zituzten kalteak ikusita.



### ESKERTZA

Apirilaren 24an hil zen, istripuz, 55 urte zituela

**MARIA ROSARIO ASEGINOLAZA ARTOLAZABAL,**  
Goian bego

*Etxekook bihotzez eskertu nahi dizuegu egun hauetan gure doluan laguntza eta elkartasuna eman diguzuen guztiori.*

**PLACENCIA**  
KONTSUMO KOOPERATIVA

*Esku eskura! Telf: 943 75 13 45*

Telefona 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

*"Giro euskalduna eta sanua"*

**ETORRI ETA GOZATU**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

**etxera**

# Benito Lertxundi, ikaslearen jakinduria



*Benito Lertxundi (Orio, 1942) Euskal musikagintzako erreferentzia nagusienetako bat da. Euskal kantagintza berria deitu izan dena berak eta Ez dok amairu taldeko beste partaide batzuk sortu zuten, 60ko hamarkadan. Orduz geroztik, 10 diskotik gora argitaratu ditu, iaz azkena: “40 urtez ikasten egonak”, zuzenekoa. Disko hortako kantu batzuk eta beste zenbait berri joko ditu datorren maiatzaren 26an kiroldegiko frontoian. Plazentzian kantatzen duen hirugarren aldia izango da. 60.hamarkada erdialdean Gayarre zineman jo zuen eta 70.ean hamarkada erdialdean Frontoian*

## **Plazentzian 60eta 70. hamarkadetan-kantatu zenuen. Nola aldatu da euskal gizartea orduetik hona?**

Gogoratzen dut bai Soraluzen izan naizela, haize zabalean, patio batean edo, baina egia esan oso lanbrotsu daukat. Urte haietatik hona aldaketa asko eman dira gizartean, zentzu guztietan, beharbada haundienetako bat kantagintzan. Garai haiek oso hasiera ziren eta gauzak egiten ziren hasieran egiten diren bezala, nolabait egin eta martxan jarri. Geroztik 40 urteko historia dago kantagintzan eta bideak jorratu dira, musikak ulertzeko eta kanporatzeko modua, esperientzia, ofizio baten jabe izatea... eta gizartea bera ere horrekin batera aldatzen doa; garai batean behar batzuk ziren, eta belaunaldiak aldatzen joan ahala aldatzen doaz behar horiek.

## **Orduan borrokarako gogo gehiago ze- goen gizartean?**

Gu frankismoaren barruan hasi ginen. Errepresioari kantaren bidez erantzuten zitzaion. Behin eta kantagintza errealtate bihurtzen denean, beste gai batzuk jorratzen hasten da, beste kezka batzuk, bizitza berak bere baitan hartzen dituen mila gauza. Horrek ez du esan nahi borrokarako gogo hura galdu denik; beste modu batera egiten da. Lehen oso kantu politikoak baziren orain politika egiteko badaude beste foro eta bide batzuk. Nik neronek ere sentitu dut presio bat, beti gai bati heldu beharra bezala izatea. Muga hori haustea oso inportantea izan zen neretako, eta beste batzuentzako ere bai. Gaur egun bo-

rrokarako griña eta energia badago, baina bizitzaren legea nola den formaz, egituraz eta itxuraz aldatzea, orain beste era batera egiten da. Neri batzutan esan didate: zuk lehen protesta kanta egiten zenuen eta orain? Nik oraindik ere kontestataro izateko gogo eta zaletasuna badut, baina beste modu batera. Gai asko daude gure bizitzan preso hartzen gaituztenak eta horiek ere salatu egin behar dira.

## **Bake prozesua hasi berri da. Nola ikusten duzu?**

Egia esan prozesuek eta despistau egiten naute. Bake prozesua aipatzen denean badirudi helburua ba-

*“Hizkuntza, bere kultura eta egitura politikoa lotuta joan dira beti. Hori bereiztea ulertezina iruditzen zait”*



# “Askatasuna ez da helburu bat, baizik eta ulertu behar dena ulertzeko ezinbesteko tresna”

kea dela, eta zentzu baten bada, baina bakea nik uste dut azken finean dela ondorio bat eta ez helburu bat. Bakea berez egoten da, hara heltzeko gauzak behar bezela daudenean eta egiten direnean. Orain bertan kanpoan dagoen diskurtsua, medioetan dagoena, politikoen mezua, batzutan nahasteko modukoa egiten zait, itxaropena behintzat gehiegi sortarazten ez duen zerbait entzuten dut. Nik uste prozesu hauek toki onera helduko baldin badira, bitarte hortan entzuten duzuna interesantea edo kontentzagarria ere izan behar dela eta gehiegi ez dut ikusten. Orain, ikusiko dugu zer ateratzen den, gaude pixkat zain. Lizarra garaziko epea ere ez zen izan oso gustagarria edo interesa sortzeko modukoa. Konturatu nintzen askoren diskursua erabat baztertuta gelditu zela, indarrrik gabe,

eta mugatuta dauden territorioetan gertatzen diren gauzei buruz ari gara. Zibilizazioa hainbeste bider deitzen diogunean ohitu egiten gara, benetako zibilizazioa hori ete dan, baina bere mugak ditu. Herri batean politikoki burujabetza ez dagoenean kultur jabetza ere ez dago. Hizkuntzarekin batera bere kultura guztia eta egitura politikoa beti egon dira lotuta Hori bereiztea ulertezina iruditzen zait.

## Zela ikusten dozu gaur egungo euskal musikagintza?

Inoiz baino produkzio hobeak egiten dira. Ofizioaren jabe bagara, baina ofizioaz gain neretako artea ere egon behar da. Artea eraso egiten duen zerbait da, hunkitzen duen zerbait; hori da galbahea neretzako. Gauza misterioso hori, talentoa ere esaten zaio-

Ez dut natura ikusten, natura naiz. Gure begiak egoten dira oso okupatuak. Legado bat jaso dogu jaio garenetik, halako kultura bat, siniskeriekin lotua: hau ona da, hau txarra da... badago epaile bat eta araudi moduko bat. Beti zoaz norbaiten eskutik. Begi horiek libre daudenean perzibitzen dutena oso bestelakoa da, beste ahalmen bat dute, jakintsuagoak dira, konturatzen da natura dela ezinbestean, ez dagoela ezertatik aparte, eta gainera ikasten du naturaren destinoan lasai egoten, ez baitu ikusten posibilitaterik hortik kanpo egoteko. Ezinbestean, natura naiz, eta naturak egiten du ezinbestean hau hau eta hau, orduan zegaitik ez nago lasai nere patuan? Pentsamenduekin ulertzen ez dena begiekin ulertzen duzu. Hori ez da informa-

## MOTZEAN

**GITARRA:** jenteaurrean nere ezinbesteko egoteko modua.

**EZ DOK AMAIRU:** nere bataioa.

**EUSKERA:** sehaskako hots kutuna.

**ZUBEROA:** maitemindu ninduen euskal herriko eskualdea.

**UDAZKENA:** serenidadearen izarra.

**ITSASOA:** ezinbesteko lehioa.

**BALEA:** 105 urte damakizkigu herri hortan bale gaixoari arpoia sartu ta sartu.

**BAKEA:** kontzientzia egoera bat.

**MAITASUNA:** askatasunik gabe ulertu ezin dena.

**OLATZ:** nire adiskiderik hurbilena.

**BIZITZA:** errealitate bat, une honetan nere sistema nerbioak bizi duena.

**AMETSA:** gabekoak direnean gure eguneroko bidai inizatikoaren libraketa bat. Jakinduriaren adierazpena.



Argazkian, Benito Plazentziara etorriko diren musikari lagunekin

baina hala ere beste aldetikan, nolabait ere, hori baliatuz diskursua kentzeko ahalmen hori faltan sentituen. Horregatik ni beti nago esperroan.

## Ze nahiko zenuke politika mailan Euskal Herriarentzako?

Askatasuna. Askatasuna da zibilizazioaren espresiorik gailurrena, giza bakoitzaren edo giza kolektiboen arrazoi nagusia. Zibilizazioaz hitz egiten dugunean, oso baldintzaturik

na, beharbada ez dago asko, baina beharbada ez dago munduan ere. Hala ere gaur badaude euskal herrian musika gutxi batzuk mundu mailan konpetitu dezaketenak, lehen lerrokoak. Hizkuntza dugu handicap handi bat. Merkatuak beste galbahe hori pasatzen du, hizkuntzarena.

**Zure kantuetan natura oso presente dago. Pessoren poema bat kantatzen duzu “begiekin ulertze hori”. Zein begiekin ikusten duzu orain natura?**

zioaren erudizioa, hori da jakinduria. Askatasuna ez da helburu bat, baizik eta ulertu behar dena ulertzeko ezinbesteko tresna.

## Zer joko duzue Plazentziako kontzertuan?

Zuzeneko diskoko kantuak, gehienak, eta berri batzuk ere bai. Joan zen astean Galizian jo nuen kanta berri bat lehen aldiz eta erabat maiteminduta nauka. Hori ere joko dugu.

# 17 artisau etorriko dira azokara



Domeka honetan, maiatzak 14, Gipuzkoa eta Bizkaitatik etorritako 17 artisauk euren lanak erakutsiko dituzte Plaza Barria eta Zubi Nagusian, 11:00etatik 14:00etara goizaldean eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldean. Azoka Gabiltza Gipuzkoako artisau elkarteak eta Sorluzeko Udalak antolatuko dute. Parte hartzaileen artean herriko artisau bat ere izango da: Aitor Amor makilagilea. Egunean zehar kermika eta lore lehorren tailerra izango da eta baita egurrekin lotutako zurgintza ekitaldi bate ere, Begi artekoek eskeinia.

## Musika eskolako audizioa 17an

Umeei instrumentu desberdinak ezagutarazteko helburuarekin, audizioa eskeiniko dute Musika Eskolakoek datorren asteazkenean, hilak 17, frontoiko aterpean. Audizioan, musika eskolako irakasleek, musika tailerreko ikasleek eta Plaentxi L.H.I.ko haurrek hartuko dute parte, eta horrela eman go zaio hasiera datorren ikasturterako matrikulaizo kanpainari.

## Rock kontzertua eta bertso saioa Gaztetxean

Zapatu honetan, maiatzak 13, Gasteizko Atomoog taldearen rock kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 22:30etan. Maiatzaren 20an berriz, aurtengo Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen txapelketako saioa jokatu da. Mikel Arrillaga, Gorka Lazkano, Eneko Abasolo "Abarkas", Iñigo Arzeluz, Unai Muñoa eta Jokin Labaienek jardungo dute bertsoetan. Aurretik afaria izango da.

## Jai Batzordea

Udaleko kultura eta gazteria sailak Jai Batzordea deitu du hilaren 18rako. Batzarra kiroldegiko erakusketa gelan izango da arratsaldeko 8etan.



**DANTZA TALDIA OÑATIN** Sorluzeko Urrats dantza taldeko dantzariak Oñatiko Dantzari Egunean parte hartu zuten apirilaren 29an.

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonoa: 943 75 17 82

20590 Sorluze  
GIPUZKOA

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaleta  
K. Z. 20.000.434  
Nora Bastida Etxeberria  
K. Z. 20.000.736

## HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

*Aurtengo Euskal Jaietarako egitarau indartsua prestatu du Euskal Jai Batzordeak. Musika, euskara eta dantza uztartuko dira hiru ekitaldi nagusitan. Herrian euskal giroa sustatu eta euskararen aldeko mugimenduarenei bultzada on bat ematea da helburua.*



Aurten ere sagardotegi ezberdinetako sagardoa izango da aukeran.



# Bai Euskarari Eguna

## Maiatzaren 27an, Erregetxean



euskarari

# 27

elkartek

parte hartuko dute euskararen aldeko egun erraldoian. Kirol, kultura, gastronomia... denetik izango da.

## Laguntzaileak behar dira

Egunean zehar egingo diren ekitaldien antolaketa lanetan laguntzeko. Datozen egunetan antolatzaileek kuadrilei eta banakoei laguntza eskatuko diete.

## Euskal Jaixak 2006

### 3 ekitaldi erraldoi

#### MAIATZAREN 26AN, BARIXAKUA

- Benito Lertxundiren kontzertua (sarrerak tabernetan).

#### MAIATZAREN 27AN, ZAPATUA. BAI EUSKARARI EGUNA

- 9etan mendi irteera.
- 10etan gaztetxoan pelota partiduak
- Mountain bike bira eta moto-irteera
- Gisatu txapelketa
- 11tan umeentzat jolasak
- 12etan salda eta txorixoa
- 12:15etan Euskararen Aldeko Manifestua
- 12:30etan dantza eta bertso saioa
- 13:00ean kalejira-zirkus
- 14:30etan kantu bazkaria (150 lagunendako tokia + Abesbatza + musikariak)
- 18etan sagardo dastaketa
- 18:30etan Tapia eta Leturiarekin erromeria.

#### EKAINAREN 4AN, DOMEKA. XXXI. HAUREN EUSKAL JAI

## Etxean dantzariak hartzeko gertu?

100 dantzaritik gora izango dira herrian ekainaren 4an.

- ◆ Etxean dantzariren bat hartu nahi baduzu...
- ◆ Dirulaguntza eman nahi badiuzu Euskal Jai Batzordeari...

**Iratxo Goxodendan duzu aukera!**





## Motor kontzentrazioa maiatzaren 20 eta 21ean

Asteburu osoko Motor kontzentrazioa (IX. Topaketa) antolatu du maiatzaren 20 eta 21erako Plaentxi Motoclubak, Udalaren eta herriko komertzioen laguntzaz. Antolatzaileek 200 motozale espero dituzte. Zapatu gauean Ezoziko futbola zelaiaren egingo dute lo. Hau da egunotararako egitaraua:

### Maiatzak 20, zapatua

- 16:00 Izen emateko epe irekia BOLLIA tabernan,
- 17:00 Gasolinako kotxe txikien erakusketa herrian,
- 20:00etan Trialsin erakusketa Plaza Barrian: Iker Lezeta, Albertto Gómez,

- 01:00 Musika eta performance erakusketa Plaza Berrian.

### Maiatzak 21, domekia

- 09:00 Gosaria eta izen emateko epe irekia BOLIAn,
- 11:00 Ibilbidea: Soraluze, Maltzaga, Elgoibar, San Migel Mendatea, Unamuntzaga, Galartza, Oriaga, Aginaga, Maltzaga, Soraluze,
- 14:00 Bazkaria eta errgalo zozketa frontoian,
- 16:00 agurra datorren urtera arte.

PREZIOA: 2 egunak: 15 euro

Igandea: 8 euro

Oharra: Opari zozketak Soraluzeko tabernetan egingo dira.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

#### LASKURAIN

##### 2. mailako txapelketan

- Berasaluze 22
- Laskurain 4

#### ATXOTEGI

##### Itziarko txapelketan 4terdian

- Atxotegi 22
- Ruiz 10

#### Deba Arrokoan

- Atxotegi - Portu 22
- Lezaun - Sarasua 18

#### Bergara hiria txapelketan

- Atxotegi - Beroiz 7
- Olo - Etxeberria 22

#### JAUREGI

##### Bergara hiria txapelketan

- Renobales - Gutierrez 22
- Olaetxea - Jauregi 8

#### Tolosan

- Olaetxea - Jauregi 22
- Markiaran - Azanza 12

#### Irunen

- Erroizenea - Jauregi 22
- Cerezo - Apezetxea 14

HERRIKO PELOTA TXAPELKETA  
Asteburu honetan an jokatuko dira lehenengo partidua San Andresen

### FUTBOLA

BATZARRA egingo du astelehenean 19:30etan kiroldegian Soraluze Futbol taldeko zuzendaritzak datorren denboraldiko zuzendaritza osatze aldera.

**GURE ZERBITZUAK**

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

## ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

**ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)**

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

## TXOKO KAFETEGIA

*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

## HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

# Unai Larreategi

## EHEko harremanetarako arduraduna

Maiatzaren 3tik 7ra bitartean Europako IV. Foro Soziala egin da Greziako hiriburuan, Atenasen. Antolatzaileen esanetan 40.000 bat lagunek hartu dute parte egin ziren 200 mintegietan. Unai Larreategi plazentziatarra ere bertan izan da, Euskal Herrian Euskaraz ordezkatzan.



### BERTSO BEGIZ

*Irrifartsu ta burua tente ez haiz ez mutil makala! oxala beste asko egingo baleukiek hik bezala. Euskal Herrian Euskaraz eta Atenasen ere hala! Nahiz ta guria dan modernua ta hizkuntza mundiala, esan al dotsek monumentuok baino zarragua dala?*

### ETXEBARRI

*Doinua: Mutil koxkor bat...*

*“Eraiki nahi dogun Europa berri honetan, lan asko dago egiteko hizkuntzen inguruan”*

### Zeintzuk alkartu zarete Atenaseko foro sozialean?

Agintariak eraikitzen diharduen Europa ereduarekin kritiko garan Europa mailako gizarte eragiliak. Foro soziala ez da politikuen gunia, eragile sozialena baizik. Euskal Herriatik dozena bat eragile jua gara gizarteko sektore desberdinak ordezkatzera: sindikatuak, ikasleria, emakumiak, hizkuntzen aldeko mugimenduak... Aurten lehenengoz Europa ekialdian egin da foroa (Florentzian, Parisen eta Londresen egin ziran aurrekuak) eta bertan izan garanok beste errealitate bat ezagutzeko aukeria izan dugu. Turkiatik eta Kurdistanetik juandako elkarte desberdinen eritzixak jasotzekua adibidez.

### E.H.E.k antolatutako foroak nolako harrera izan zuen?

Pozik gare pausuak emoten goiazeko baina ondio lan haundixa dago egiteko foruetan hizkuntzen inguruan. EHErekin batera honek elkartio hartu zeben parte gure mintegixan: Hizkuntza eskubidien Behatokitiko idazkarixa Paul Bilbao, Galesko Cymuned elkartekuak eta Babbelsekuak (Foroko itzulpen zerbitzuaz arduratzen dan elkartia).

### Zeintzuk izan dira egin dituzuen aldarrikapenak?

Hizkuntza eskubidiak bermatzia. Hizkuntza guzti-guztiak ofizialak izatia, ez Estatuaren hizkuntzak bakarrik. Behin hori onartuta, lege horren araberako politikak martxan jartzia.

### Ze balorazio egiten dozue?

Alde batetik, eraiki nahi dogun Europa berri honetan hizkuntzen inguruan lan asko egin biharra daguala.

Foruan bertan mintegixetan, hizkuntza eskubidietaz berba egitten dogunian igartzen da bigarren mailako eskubide moduan ikusten dala, ez daukala biharko leukian harretarik. Beste alde batetik ikusten dogu pausuak bagabizela emoten. Parisko foro sozialian 4 lan-hizkuntza egon ziran; Atenasekuan berriz, 21 (euskeria barne). Poliki-poliki bagoiaz gure tokitxua irabazten. Esan biharra dago Euskal Herriatik juandako eragilerik gehixenak euskera erabili dabela eta hori oso inportantia da.

### Atenasen turismua egitteko aukeria be eukiko zenduan ...

Bai, bai, berez esaten dabe 2 egun nahikua dirala Atenas ezagutzeko, baina guk 7 egun pasa dittugu Atenastik urtetzeke, eta ez dogu asperetzeko denborarik izan...



**JATETXEA  
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



*Diseinua eta Sormena*

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

### Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

## Argazki zaharra



Iturria: Mauri Garmendia.

### Debako hondartzan, 1925ean

Argazkixan ageri diran plazentziatarak trena hartu eta arratsalde pasa juan ziran Debako hondartzara, 1925. urtian. Mauri Garmendiak bialdu dosku argazkixa: bertan bere anai bi eta ama ageri dira.

Ezkerretik eskumara, goixan zutik: Luis Mendia eta Maria Larrañaga. Jarritta: Visitación Derruke, Concepción eta Valentina Larrañaga. Hondarretan jarritta: Mikel eta Miren Alberdi anai - arrebak eta Jesus eta Jabier Alberdi anaiak.

## Lehiaketa

**Komun publikoak...**

**Aurreko aleko erantzuna**

Oin komun publikuak daren lekuan lehen labaderua zeguan. Labaderuan erropak eta izarak garbitzen ziran harrizan kontra. Andrak izaten ziran lan hau egitten zebeak eta elkarrekin berbetaldi edarrak be egitten ei zittuen harrikua egitten ziharduen bittartian.

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Zela zeukan izena mende hasierako karlisten musika bandiak?

- Banda San Ignacio
- Banda "Paz y labor"
- Banda San Emeterio

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra edo e-mail bat bidal ezazu:

**pilpilean@euskalnet.net**



**SARIA**

Fisioterapia saio bat Gogortuz Fisioterapia Zentruan

**SARIA**  
Benito Lertxundiren kontzerturako bi sarrera

**AURREKO ALEKO IRABAZLEA**  
Xabier Retolaza



**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



maiatzaren

11tik aurrera

**berria berria = berria<sup>2</sup>**

**kazeta eredu berria**

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

**GUREAN ULERTUKO DUZU**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



# MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## maiatzak 17-tik ekainak 9-ra

### ■ MUSIKA TAILERRA

4, 5 eta 6 urtekoentzat

### ■ INSTRUMENTUA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA

7 urtetik aurrera

- Klarineta
- Txistua
- Flauta
- Trikitixa
- Tronpeta
- Biolina
- Soinua
- Saxofoia
- Tronboia
- Pianoa
- Gitarra

### ■ MUSIKA MODERNOA

14 urtetik aurrera

- Bateria
- Baxu elektrikoa
- Gitarra elektrikoa

 Soraluze  
musika eskola  
148 p.k. 20590 SORALUZE  
Tel. 686 263 474



**zatoz SORALUZE MUSIKA ESKOLARA**  
**eta informa zaitez!!**

Idazkaritza / Secretaria  
astelehenetik - ostegunera / de lunes a jueves  
15:00etatik-17:00etara

Frontoian gaude:  
telf. 943 75 15 44

e-posta: [soraluze@musika.e.telefonica.net](mailto:soraluze@musika.e.telefonica.net)